

Eraginkortasun energetikoari buruzko Greenpreneurs proiektuaren emaitzak ikusgai jarri dituzte Nafarroan garaturiko hiru proiektu ekoiraunkorrek.

2017/06/27

Eraginkortasun energetikoari buruzko Greenpreneurs europar programa gaur bukatu da Iruñean, non Nafarroan energia iraunkorraren inguruan garaturiko ekintzailtza-proiektuak aurkeztu diren. Mondragon Unibertsitatea izan da programaren liderra eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua, berriz, sustatzailea. Langabezian diren pertsonen sustaturiko ekimenak aurkeztu dira: lehena, hegazti-granjetan airea girotzeko proiektua (Avir Poultry Comfort); bigarrena, industriari uraren eta energiaren telegestioan laguntzeko proiektua (Dateando); eta, hirugarrena, zerbitzuak emateko proiektua (Urdinnova).

Gaur izan da europar proiektuaren bukaera-ekitaldia, Civican zentroan. Bertan, beste herrialde batzuetan lortutako emaitzak ere ezagutarazi dituzte. Horrez gain, zenbait adituk hizketan jardun dute tokiko gobernuek eta enpresek aurrera eraman ditzaketan jarduera-lerro ekoiraunkorrei buruz, enplegua eta ongizatea sortu, klima-aldaketaren aurka borrokatu eta trantsizio energetikoa sustatzeko.

Programak partaide izan ditu, besteak beste, Bristolgo (Erresuma Batua) University of the West of England eta Finlandiako Turku University of Applied Sciences LTD TUAS unibertsitateak. Horien ordezkariak Iruñean izan dira.

Greenpreneurs programaren finantzatzailea Europako Gizarte Funtsa da, Erasmus+ Programaren bidez, eta haren helburua energiaren kontsumo iraunkorra ahalbidetuko duten ekimenak sustatzea da.

Horretarako, trantsizio energetikoa bultzatzen du, energia-aurrezpena, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak oinarri hartuta, trantsizio horrek eragin onuragarria izango duelakoan gure inguruko gizarteari, ekonomiari eta ingurumenari lotutako alderdi askotan. Aukeratutako proiektuek, hain zuzen ere, erronka horiei aurre egitea dute xede, gizarte osoan jokabide energetiko iraunkorragoa bideragarri izan dadin.

Proiektuak

Greenpreneurs proiektuak hiru ekintzailtza-proiektu sorrarazi ditu Nafarroan, prozesua bukatu duten 17 gazteen artean (guztira 150 gaztek hartu zuten parte eta, horietatik, 20 aukeratu ziren).

Dateando proiektua

Sustatzailea Gabriel Viscarret da, ingeniari tekniko informatikoa eta SCADA aplikazioen programatzailea. Haren enpresa-proiektua ANEL elkartearen babespean sortu da. Funtsean, Big Dataren arloan sortzen ari diren teknologia berrien bidez datuak eskuratu, aztertu eta "Gauzen Interneten" erabiltzean datza. Proiektua lagungarri izango da industriarentzat eta uraren eta energiaren telegestio-sistementzat, produkzioari eta eraginkortasunari buruzko erabakiak hartzeko, erabaki horiek funtsezkoak baitira lehiakortasunerako.

Avir Poultry Comfort proiektua

Hegazti-granjetan airea girotzeko enpresa-ideia da. Izpi infragorriak, sensore-sistema bat eta datuen monitorizazioa erabiltzen ditu. Hitz gutxitan, proiektuak airea girotzeko sistema adimenduna garatuko du, nabe osoan aire beroa izan ordez. Proiektuaren helburu nagusiak honako hauek dira: granjen lehiakortasuna hobetzea, granja eta zentral kooperatibo edo integratzaileen gestioa aberastea, ingurumen-inpaktua txikitzea eta langileentzako osasungarritasuna irabaztea.



Urdinova proiektua

Eraginkortasun energetikoari, energia berriztagarriei eta iraunkortasunari buruzko zerbitzuak emateko elkarte sortzeko helburua du proiektuak. Elkarre hori erreferentzia izango litzateke iraunkortasun energetikoaren, gestioaren, eraginkortasun energetikoaren eta energia berriztagarrien sustapenaren alorretan.

Programa – CIVICAN.

09:00 / Parte-hartzaileak hartzea.

09:30 – 09:4h / Jardunaldia irekitzea, MIK S. Coop. proiektuaren koordinatzaile Josune Prieto Alonsoren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzu Publikoko - Lansareko zuzendari kudeatzaile Paz Fernandez Mendazaren eskutik.

09:45 – 10:30 / Hasierako saioa.

Carmen García Lores, Rubí herriko alkate ohia eta N2Eko Erakunde Harremanen arduraduna.

10:30 – 11:30 / Greenpreneurs programaren emaitzak aurkeztea.

11:30 – 12:15 / Talk-Showa: Kontzeptu berdea, eredu berri baten oinarria. Jose Costero Bolaños, Iruñeko Udaleko Bulego Estrategikoaren zuzendaria; Carmen García Lores, Rubí herriko alkate ohia eta N2Eko Erakunde Harremanen arduraduna; Miguel Angel Pascual, Efinovatic-eko bazkide zuzendaria. Moderatzailea: Manuel Enríquez Jiménez, arkitektoa, ByE arquitectos bulegoko bazkidea.

12:15 – 12:30 / Bukaera.

12:30 – 13:00 / Horma-irudiak aurkeztea atondoan.